

HERNANIKO UDALAREN UDALTZAINGOKO OFIZIALORDE LANPOSTUA OPOSIZIO-LEHIAKETA ASKEZ BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUA

Deialdiko Epaimahai Kalifikatzaileak hau erabaki du:

1.- Udaltzaingoko Ofizialorde lanpostua oposizio-lehiaketa askez betetzeko hautaketa prozesua amaituta, oposizio-lehiaketa fasean ateratako emaitzak argitaratzea.

2.- Lehenengo hautagaiaren aldeko praktikaldiko izendapen proposamena egin zen, baina 2023ko irailaren 18an Hernaniko Udaleko erregistro elektronikoko bidez uko egin zion izendapen proposamenari, eta 2023ko urriaren 9ko 2023/2627 alkate dekretuaren bitartez ukapena onartu zitzaion.

3.- Bigarren hautagaiaren aldeko praktikaldiko izendapen proposamena egin zen, baina 2023ko urriaren 20an Hernaniko Udaleko erregistro elektronikoko bidez uko egin zion izendapen proposamenari, eta 2023ko urriaren 23ko 2023/2716 alkate dekretuaren bidez ukapena onartu zaio.

4.- Hirugarren hautagaiaren aldeko praktikaldiko izendapen proposamena egin zen, baina 2023ko azaroaren 6an Hernaniko Udaleko erregistro elektronikoko bidez uko egin zion izendapen proposamenari, eta 2023ko azaroaren 7ko 2023/2784 alkate dekretuaren bidez ukapena onartu zaio.

Hori guztia kontuan hartuta, epaimahai kalifikatzaileak ondoren zehazten duen hautagaia praktiketako funtzionario izendatzea proposatu du.

1. ABIZENA	2. ABIZENA	IZENA	NA	GUZTIRA
SAGASTIBELTZA	ELOLA	URKO	***5856**	69,7000

4.- Baldintzak egiaztatzea

Deialdiko hamaikagarren oinarrien arabera, izendatzeko proposaturiko pertsonak xedapen horretan zehazten diren dokumentuak eta lehiaketa fasean baloratutako merezimenduen dokumentuak ekarri beharko, iragarki hau argitaratu eta ondorengo egunetik hasita 15 laneguneko epean.

Baldin eta goian esandako epearen barruan, hautagaiak ez balitu egiaztagiria aurkeztuko edo ez balu eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu, ezin izango da izendatu, eta haren jarduketak guztiak deuseztaturik geratuko lirateke. Kasu horretan, organo eskudunak, zerrenda osagarria joko luke eta hurrenkera jarraituz ondorengo hautagaia izendatuko luke.

Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da alkatearen aurrean hilabete bateko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotakoarekin bat.

Hernanin, 2023ko azaroaren 7an
Epaimahai Kalifikatzaileko idazkaria